



AGINDUA, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Segurtasuneko sailburuarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez Colegio Profesional de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea erabakitzen baita.

I.- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta horri buruz indarrean dagoen araudia.

2022ko martxoaren 31n, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean sartu zen Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargo profesionala sortzeko eskaera, Euskadiko Kriminologiako Profesional eta Ikasleen Elkarteak aurkeztua.

Profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenak Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan oinarritzen dira. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa dauka profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa errespetatuta.

Eskumen hori garatzeko eman zen 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa. Lege hori Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez garatu zen.

Aipatu azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 23. artikulua arabera, elkargo antolaketa lege hori indarrean sartzean horrelakorik ez duten lanbideetara zabaldu ahal izango da, baldin eta lanbide horietan jarduteko unibertsitate-titulua behar bada eta interes publikoko arrazoiak badaude.

Kriminologiako ikasketak uztailaren 4ko 858/2003 Errege Dekretuaren bidez ofizialdu ziren lehen aldiz. Dekretu horrek Kriminologiako Lizentziaturaren unibertsitate-titulu ofiziala eta titulu hori lortzeko ikasketa-planen jarraibide orokorrak ezartzen ditu.

Geroago, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretu indargabetuak unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamendua ezarri zuen, eta unibertsitatei eman zien eman beharreko tituluak sortu eta proposatzeko eskumena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskal Herriko Unibertsitateak Kriminologiako Gradu bat ematen du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko ekainaren 23ko Aginduaren bidez ofizialdua. Agindu horren bidez, baimena ematen da Euskal Herriko Unibertsitatean graduiko ikasketa ofizialak ezartzeko, eta inskribatuta dago Estatuko Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan, 2501473 kodearekin.

Hala, kriminologiako profesionalak prestatzeko titulazio ofizialak daudela egiaztatuta badago ere, ez dira lanbidean jarduteko ezinbesteko baldintza, izan ere orain arte ez da arautu.

Hala ere, Espainiako estatuko beste erkidego batzuetan mota bereko erakunde korporatiboak sortzeko arauak egoteak agerian uzten du interes publikoa dagoela, gutxienez, lurralde-eremu



horietan (ikus 2/2013 Legea, uztailaren 4koa, Generalitatearena, Valentziako Erkidegoko Kriminologoen Elkargo Ofiziala sortzekoa; Asturiasko Printzerriaren 6/2015 Legea, martxoaren 13koa, Kriminologoen Elkargo Profesionala sortzekoa; 50/2017 Dekretua, maiatzaren 23koa, Kataluniako Kriminologoen Elkargoa sortzekoa; 5/2017 Legea, apirilaren 27koa, Madrilgo Erkidegoko Kriminologoen Elkargo Profesionala sortzekoa; 5/2018 Legea, maiatzaren 28koa, Murtziako Eskualdeko Kriminologia Elkargo Profesionala sortzekoa).

Ildo horretan, elkarte eskatzaileak elkargoa sortzeko aukera arautzailea oinarritzen du erakunde publiko eta kolektibo antolatuen barruan disgregatutako kriminologiako profesionalen artean dagoen kohesio-falta zuzentzeko beharrean. Horrek esan nahi du, eskabideari erantsitako elkargo berria sortzea komeni dela dioen memorian adierazten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko kriminalitatea aztertzeko helburuak aberastuko liratekeela eta kriminologiako tituludunen interesak hobeto defendatuko liratekeela, haien jarduna koordinatuz.

Aurrekoaz gain, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, profesionalen elkargo berriak sortzeko eskaera profesional interesdunek egin beharko dute, behar besteko ordezkari-tza duela eta behar bezala egiaztatuta.

Bestalde, otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 18. artikulua elkargo profesional berriak sortzeko prozedura arautzen du, eta, zehazki, zehazten du zer dokumentazio aurkeztu behar duten eskatzaileek elkargoa sortzea eskatzen duten profesionalen ordezkari-tza egiaztatzeko.

Nahitaezko dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatuta, eta otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, elkargo profesionala sortzeko espediente sail eskudunen esku utzi zen, delako lanbidea kontuan hartuta, balorazio- eta erabaki-txostena egiteko elkargo profesionala sortzeko prozedurarekin jarraitzearen egokitasunari eta komenigarritasunari buruz, interes publikoari dagokionez.

Ildo horretan, 2022ko azaroaren 14an, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren txostena erantsi zitzaion espedienteari. Txosten horretan ez da eragozpenik jartzen elkargo profesionala sortzeko prozedurarekin jarraitzeko.

Era berean, 2022ko azaroaren 24an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Justizia Zuzendaritzaren txostena aurkeztu zen, eta balorazio positiboa egin zen, elkargo profesionala sortzea bide egokitzat hartuz *«gizarte-gatazkaren fenomenoaren azterketari aplikatutako zerbitzu profesionalak ematean kalitate-bermea, kontrol hobea eta jarduketa deontologiko egokia errazteko, bai eta kriminologoei lanbide-kolektibo gisa dituzten eskubideak hobeto defendatzen laguntzeko eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babesteko ere, elkargokideek emandako zerbitzuei dagokienez»*.

Azkenik, 2022ko abenduaren 21ean, Lehiaren Euskal Kontseiluak elkargoaren sorrerari eta estatutuei buruzko txostena egin zuen. Horri dagokionez, LEKek honako hau adierazi zuen: *«Lortu nahi den elkargo-egitura ez da, funtsean, eskatzailea bezalako elkarte-erakunde batena bezalakoa, eta, beraz, Elkargo Profesional berria sortzeak ez luke inolako gehikuntzarik ekarriko interes publikoaren alde. Gainera, elkargo berria sortzea ere ez litzateke proportzionala izango, Elkargoa proposatzen duen elkartearen bidez modu berean egin baitaiteke interes profesional*

berdinen defentsa».

Hala ere, estatutuak hobetzeko gomendioak egin zituen, zeinak eskatzaileak kontuan hartu baitzituen, arau-proiektuaren ibilbidea ahalbidetuz.

Aurreko guztiaren ondorioz, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak ordezkagarritasuna egiaztatutzat jotzen du elkargo profesionala sortzeko arau-proiektua izapidetu aurreko urrats gisa, eraketa horretarako dagoen interes publikoan oinarrituta.

Azkenik, proiektaturiko arau-testuaren tipologia hautatzearen justifikazioari dagokionez, dekretu gisa, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29. artikulua aipatu behar da. Horren arabera, elkargo berriak sortzeko, Eusko Legebiltzarraren legea beharko da, betiere lanbide horretan jarduteko ezinbestekoa bada elkargo bateko kide izatea.

Tarteki hori; *«lanbide horretan jarduteko elkargo bateko kide izatea ezinbestekoa denean»*, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentzura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoak, sartu zuen.

Ildo horretan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aipatutako apirilaren 23ko 7/2012 Legea izapidetzean emandako 14/2011 Irizpenean adierazitakoaren arabera, lege horrek lanbide-elkargoen erregulazio autonomikoan egindako aldaketari dagokionez, 66. orrialdean eta hurrengoetan, nahitaez elkargoko kide izan beharreko lanbideak zehaztea Estatuko legegileari dagokion oinarritzko edukia da, eta tarteki hori Estatu/EAE eskumen-mugaketa hori azpimarratzeko sartu zen. Edolona ere, honela interpreta daiteke bereizketa hori: lege-erreserba nahitaez kolegiatu beharreko korporazioak sortzeko baino ez da aplikatu behar.

Elkargo profesionala dekretu bidez – eta ez lege bidez – sortzeko justifikazioan sakontzeko, profesionalen elkargoak sortzeko prozedurari buruz Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak 2013ko abenduaren 5ean emandako 201/2013 epaiaren bosgarren oinarri juridikoan jasotako argudioa onartzen da. Epai hori 8434-2006 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan eman zen, Kataluniako Parlamentuaren maiatzaren 31ko 7/2006 Legearen, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargoei buruzkoa, zenbait manuri lotuta. Horien artean, nabarmentzekoa da Kataluniako elkargo profesionalak gobernuaren dekretu bidez sortzen direla ezartzen duen xedapena, Legebiltzarrak interes publikoko eta garrantzi sozial edo ekonomiko bereziko arrazoiak daudela egiaztatu ondoren. Epai horren arabera: *«(...) sortzeko lege-mailako araua eskatzeak nahitaez atxiki beharreko elkargoei soilik du oinarritzko izaera, elkargoek funtzio publikoak betetzen dituzten neurrian – deontologia eta lanbidearen antolamendua –, eta profesionalen eskubideak mugatzen dituzten neurrian – elkartzeko eskubidea eta lanbidean jarduteko askatasuna –; eta testuinguru horretan ulertu behar da Estatuko Legearen 4.1 artikulua, lanbide-elkargo guztiak derrigorrezkoak ziren une baterako aurreikusia. Eskakizun hori, hala ere, ez zaie borondatezko elkargoei aplikatzen, 25/2009 Legeak egindako erreformaren ondorioz sortu baitziren, eta elkargo horiek ez dute eginkizun hertsatzailerik lanbide-jarduera arautzeko, eta elkarteen araubide juridiko orokorraren mende daude, hargatik eragotzi gabe interes orokorreko eginkizunak bete ahal izatea, lege autonomikoaren beraren V.*

tituluan espresuki jasotzen den bezala, zeinak "elkarte profesionalak" izen orokorrarekin arautzen baititu. Legearen 37.3 eta 5, Gobernuaren dekretuz profesionalen elkargoak sortzea aurreikusten duen heinean, eskumenen ordena konstituzionalarekin bat dator, betiere interpretatzen bada borondatezko elkargoei soilik aplikatuko zaiela.».

Azkenik, elkargoa sortzeko proiektuari alde aurreko kontsulta egin zitzaion herritarrei, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoa betez. Emandako epea igaro da, eta ez da horri buruzko adierazpenik jaso.

II.- Aplikazio-eremua.

Proiektatutako elkargo profesionalaren jarduteko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da; beraz, onartu nahi den dekretua aplikatzeko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

III.- Autonomia Erkidegoko Administrazioaren araugintza-ahalmenetan txertatzea.

Lehenengo atalean aurreratu dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoak lanbide-elkargoen alorrean duen eskumena Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan xedatutakotik dator, horren arabera eskumen eskusiboa baitu lanbide-elkargoen eta tituludun lanbideen alorrean, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa errespetatuta.

Lege horren arabera eman ziren azaroaren 21eko 18/1997 Legea eta hura garatzeko erregelamendua, otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez onartua.

Gainera, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluan, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluan eta lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko saila da elkargo profesionalen sorrera sustatzeko sail eskuduna, eta zuzendaritza sustatzailea Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, Agindu hau kasuan kasuko lanbidearen arloan eskumena duten sailekin batera eman behar da, hau da, segurtasun- eta justizia-arloan eskumena duten sailekin, hots, Segurtasun Sailarekin eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera, hurrenez hurren, bakoitzaren sorrerari eta egitura organiko eta funtzionalari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

IV.- Beste araugintza-aukera batzuk, aintzakotzat har daitezkeenak.

Beharrezkoak ez diren errepikapenak gerta ez daitezen, lehen atalean azaldutakora jo behar da, elkargo berria lege edo dekretu bidez sortzea onartzeko aukerari dagokionez, bai eta bigarren

horren lehentasuna erabakitzeari dagokionez ere.

V.- Prozedura.

Jarraitu beharreko prozedura ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera egituratzen da, EAEko jarduera-eremuko elkargo profesionalen araudi espezifikoan xedatutakoarekin bat etorriz: 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, eta 21/2004 Dekretua, otsailaren 3koa.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUGU

Lehenengo artikulua.- Hasiera ematea Colegio Profesional de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari. Agindu honen eranskinean jasotako jarraibide espezifikoari jarraituz bideratuko da dekretu-proiektua.

Bigarren artikulua.- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza izendatzea prozeduraren instrukzioa egiteko ardura duen administrazio-organo.

Lehenengo xedapen gehigarria.- Hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Bigarren xedapen gehigarria.- Agindu hau Legesarea lankidetzaren gunean eta Legegunean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

Hasteko agintzen den dekretu-proiektua egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a.- Xedea eta helburua.

Dekretu-proiektu honen xedea eta helburua da Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzea.

b.- Proposatutako erregulazioaren edukia.

- - Xedea.
- - Lurralde-eremua.
- - Langile-eremua.
- - Administrazio Publikoarekiko harremanak.
- - Araubide juridikoa.
- - Xedapen iragankorrak.
 - o Estatutuak onartzea
 - o Gobernu-organoak eratzea
- - Azken xedapenak.

c.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 22. paragrafoak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenetan oinarrituta idatziko da dekretu-proiektua, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen esparruan. Lege hori Tituludun Lanbideen eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak garatu zuen.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuarekin lotuta, sail honek eskumena du fundazioen eta elkargo profesionalen arloan, hargatik eragotzi gabe sailek beren sektore-esparruan erakunde horiekin dituzten harremanak.

Gainera, dekretua materialki bideragarria izango da, hura aplikatzeak hasiera emateko agindu honetan azaldu diren lortu nahi diren helburuetarako baliozko estaldura izatea ekarriko duelako.

d.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Elkargoan sartzea borondatezkoa denez, proiektuak dakarren berrikuntza bakarra da interesatutako elkargoa *ex novo* sortzea, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hartuko baitu nortasun juridikoa, eta jarduteko gaitasuna, gobernu-organoa eratuta; hori guztia, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

e.- Inpaktuaren, emaitzaren edo beste mota bateko ebaluazioa. Bereziki, generoaren

araberako eragina.

Agindu honekin batera, txosten erantsi bat doa, proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen eraginaren, emaitzen edo bestelako ebaluazioekin.

f.- Aurrekontuan izango duen eragina.

Arautzen diren alderdiek dagokion administrazio publikoaren aurrekontuetan izan dezaketen eragin ekonomikoaren zenbatespenari dagokionez, horretarako egiten den memoria ekonomikoaren xede izango da.

Dekretuaren aplikazioak ez du inolako eragin ekonomikorik izango. Ez da beharrezkoa baliabide ekonomikorik erabiltzea, ez eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak aurrekontu-konsignazio gehigarriak egitea ere. Enpresa txiki eta ertainean izan dezakeen eraginari buruzko aurreikuspena, bere aldetik aztertuko da.

g.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren arau-planean ez sartzeko justifikazioa.

Izapidetu nahi den dekretu-proiektua ez dago sartuta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren arau-planean. Izan ere, interedunek hala eskatuta hasten da xedapen hori prestatzen, eskaera arrazoitu baten bidez, hain zuzen ere.

h.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.

Prozedura ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitakoa izango da, eta kontuan hartu beharko da Lege Proiektuak, Dekretuak, Aginduak eta Ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoa.

Arau-proiektua aurretiazko kontsulta publikoaren mende jartzeko izapidea 2023ko maiatzaren 3ko Ebazpena iragarki-taulan argitaratuz egin zen. Horri dagokionez, esan behar da otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 20. artikulua publikotasun-izapide berezi bat aurreikusten duela: Elkargoa sortzeko proiektua sustatzen duen zuzendaritzaren ebazpena jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, EHAA-n argitaratuz.

Kontuan hartuta manu hori ez dagoela lege-mailako arau batean (ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 2.1 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoaren ondorioetarako), zeina lege hori indarrean jarri aurretik idatzi baitzen, eta, herritarrei kontsulta publikoa egiteko jada egindako izapideaz gain, aurreikusita dagoela, aurrerago azalduko den bezala, dekretu-proiektua jendaurrean jartzea, elkarre eskatzaileari eta Kriminologiaren Euskal Institutuari entzunaldia emanda, uste da hori ez egitea ez dela prozedura iragartzeko betebeharraren utzikeria bat, eta, aitzitik, prozeduraren izapidetzearen efizientzia eragiten duela.

Horrela, dagozkion publizitate-betebeharrak beteta, generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzen duen txostena emango da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena egingo du.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 5. artikuluan eta 8.1 artikuluan xedatutakoarekin eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan zehar bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuta. Horregatik, testua bi hizkuntzetan idatzita egon beharko da, instrukzio-fasean aldeztu aurretik onartu eta ondoren izapidetu baino lehen.

Gainera, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 27.3 artikulua betetzeko, proiektuaren testu artikulatuaren euskarazko bertsioa eta azkenean onartu behar diren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar diren testuak zehatzak eta baliokideak direla bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da argitaratzeko.

- Aldez aurreko onarpena.

Dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzeko agindua emango dute Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Segurtasuneko sailburuak, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Arau-inpaktuaren azterketari buruzko memoria bat egingo da, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan aipatzen diren alderdi garrantzitsuak bilduko dituen.

Dekretu-proiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali behar zaionez, aipatutako organoek testua onartu ondoren, proposamena Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Instrukzioa.

Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan xedatutakoa betetzeko, herritarrei hilabete epean informazio publikoa emateko izapidea hasiko da, dekretu-proiektuaren testua EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz, herritarrek eta erakundeek dekretu-proiektuari buruz egokitutako iritziaz jotzen dituzten iritziaz eta ekarpenak jasotzeko.

Era berean, entzunaldi publikoaren izapidea emango zaie, hilabetez, honako erakunde hauei:

- Asociación de Profesionales y Estudiantes de Criminología del País Vasco/Euskal Herriko Kriminologiako Profesionalen eta Ikasleen elkarte (APECPV/EHKPIE).

- Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI).

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikuluan arabera, ez da egokia beste administrazio publiko batzuei kontsulta egitea, arautzen den gaiak ez duelako eraginik administrazio horien eskumenetan edo jarduketan.

- Dekretu-proiektuak honako txosten eta izapide hauek bete beharko ditu:

Txosten juridiko espezifikoak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Aholkularitza Juridikoarena, proiektuaren oinarriak aztertzeko, edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren ikusteko eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen diren egiaztatzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia xertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua arabera, lege horren 19. artikulutik 20. artikulura bitartean xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobekuntza-proposamenak egiteko.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko ekonomia- eta arau-kontrolen txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan aurreikusitako alderdiak berariaz aipatuz.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatuko da, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horren ondorioz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoa betez, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

- Bestalde, ez da beharrezkoa honako txosten hauek egitea:

Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, ez baita haren eskumenekoa, aldatu beharreko araua egitean jakinarazitakoarekin bat etorritik, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 20. artikulua arabera.

Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, udalerrien eskumen propioei eragiten ez zaielako, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Generoaren araberako eraginari buruzko txostena, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko lehenengo jarraibideko 2.1 a) puntuan ezarritakoaren arabera. Neurri horiek Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren, eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako

zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren.

- Onarpen-fasea:

Dekretuaren testua behin betiko idatziko da, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan.

Onartutako testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

i.- Hedapen eta publizitate aktiboa.

Dekretu-proiektua Legegunean argitaratuko da, bai eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa betetzeko interesgarritzat jotzen diren txosten eta dokumentazio juridiko guztiak ere.

j.- Europar Batasunareriko izapideak.

Ez da inolako izapiderik aurreikusten EBren aurrean.

II.- ERANSKINA

Proiektatu den xedapenak izan dituen inpaktu-ebaluazioak, emaitza-ebaluazioak edo bestelako ebaluazioak eta proiektuak ukitzen dituen xedapenak jasotzen dituen txostena.

Elkargoa sortzeko dekretu-proiektuak ez du aurretiazko xedapenik ukitzen, ezta aldatzen ere. Ebazpen honen azalpen-zatian adierazten den bezala, elkargo profesionalen euskal legeak berak zehazten du korporazio profesional horiek lege bidez sortzea eta lege hori indarrean sartzen denetik nortasun juridikoa eskuratzea.

Borondatezko elkargoko kide diren erakundeen kasuan, dekretua sortzeko arau gisa hautatzearen justifikazioa errepikatu beharrik gabe, dekretuaren izaerari buruz hausnartu behar da, ordenamendu juridikoa ez baita inola ere ukitzen, berritzen, aldatzen edo indargabetzen.

Era berean, elkargoko kide izatea borondatezkoa denez, horrek ez du murrizten kriminologiaren lanbide-jarduera. Horri dagokionez, eta merkatuen lehiari buruzko araudiaren ikuspegitik, kontuan hartu behar da Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEA) 624-NORM-2022 txostenean azaldutakoa.

Bestalde, ez da aurreikusten arau-proposamenak karga edo kostu gehigarriak eragingo dienik Administrazioari, ez eta horiek ordaintzera behartuta daudenei ere, eta ez da aurreikusten eraginik enpresa txiki eta ertainetan.

Azkenik, proiektaturiko dekretuak genero-ikuspegitik garrantzirik ez badu ere, aipatzekoa da zuzendaritza sustatzaileak etorkizuneko elkargoaren gobernu-organoaren osaera paritarioa bermatzen dela zainduko duela, eta organo horren eraketa Dekretuaren xedapen iragankorretan aurreikusiko dela.

ORDEN de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, del Consejero de Seguridad y de la Consejera de Igualdad Justicia y Políticas Sociales, por la que se acuerda la iniciación del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto de creación del Colegio Profesional de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala.

I.- Necesidad de la regulación proyectada y normativa vigente al respecto.

El 31 de marzo de 2022 tuvo entrada en el Registro General del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno solicitud de creación del colegio profesional denominado Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala, presentada por la Asociación de Profesionales y Estudiantes de Criminología del País Vasco.

Las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En su virtud, se atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los colegios profesionales y los consejos profesionales.

Según determina el artículo 23 de la citada Ley 18/1997, de 21 de noviembre, solo puede extenderse la organización colegial a profesiones que no dispongan de ella a la entrada en vigor de dicha ley, cuando tales profesiones requieran para su ejercicio de titulación universitaria y concurren razones de interés público.

Los estudios de criminología se oficializaron por primera vez mediante el Real Decreto 858/2003, de 4 de julio, por el que se establece el título universitario oficial de Licenciado en Criminología y las directrices generales propias de los planes de estudios conducentes a su obtención.

Posteriormente, el derogado Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, estableció la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, otorgando a las propias universidades la creación y proposición de los títulos a impartir.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea imparte un Grado en Criminología, oficializado mediante Orden de 23 de junio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la implantación de enseñanzas oficiales de Grado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y consta inscrito en el Registro de Universidades, Centros y Títulos estatal bajo el código 2501473.

Así, si bien queda acreditada la existencia de titulaciones oficiales conducentes a la formación de profesionales de la criminología, estas no constituyen requisito indispensable para el ejercicio de la profesión, pues, hasta la fecha, no ha sido regulada.

No obstante, la existencia de normas de creación en otras comunidades del estado español de entidades corporativas de la misma índole pone de manifiesto la concurrencia de interés público, cuando menos, en dichos ámbitos territoriales (véase Ley 2/2013, de 4 de julio, de la Generalitat, de Creación del Colegio Oficial de personas Criminólogas de la Comunitat Valenciana; Ley del Principado de Asturias 6/2015, de 13 de marzo, de creación del Colegio Profesional de Criminólogos; Decreto 50/2017, de 23 de mayo, de creación del Colegio de Criminólogos de Cataluña; Ley 5/2017, de 27 de abril, de Creación del Colegio Profesional de Criminólogos de la Comunidad de Madrid; Ley 5/2018, de 28 de mayo, de creación del Colegio Profesional de Criminología de la Región de Murcia).

